

Prestazioaren eskaera

Aseguratuaren datuak:

Izen-abizenak: _____

IFZ: _____ Jaioteguna: _____

Helbidea: _____ Zk.: _____

PK. _____ Udalerria: _____

Probintzia: _____

Telefono zk.: _____ helbide elektronikoa: _____

Aseguratuak lan zerbitzuak, estatutarioak zein profesionalak, ematen zituen lekua:

Ospitalearen/egoitzaren izena: _____

Helbidea: _____

Aseguratuaren lan-kategoria, estatutarioa edo profesionala*: _____

*Kategorien xehetasunak "Prestazioaren eskaerari lotutako informazio osagarria" izeneko atalean

Eskatzailearen datuak (aseguratua bera ez bada bete beharreko atala):

Izen-abizenak: _____

IFZ: _____

Helbidea: _____ Zk.: _____

PK. _____ Udalerria: _____

Probintzia: _____

Telefono zk.: _____ helbide elektronikoa: _____

Eskatzen den prestazioari lotutako datuak:

Heriotza gertatu bada:

Heriotza-data: _____

Heriotza-lekua: _____

Autonomia Erkidegoa: _____

Udalerria: _____ PK: _____

Ospitaleratzerik egon bada:

Ospitaleratzearen data: _____

Ospitaleko altaren data: _____

Ospitaleratzearen lekua: _____

Autonomia Erkidegoa: _____

Udalerrria: _____ PK: _____

Eskatutako dokumentazioa

Eskaerarekin batera aurkeztu behar dira jarraian adierazita dauden dokumentuak, onuradunak emanak:

a) Edozein prestazio eskatzeko:

- Onuradunaren edo onuradunen NANaren fotokopia, indarrean egon behar dena, bi aldeetatik.
- Onuradunek prestazioa jaso nahi duten bankuko kontuaren titulartasuna frogatzen duen dokumentua.
- Beharrezkoa balitz, prestazioari dagozkion zergak (Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga) likidatu izanaren frogagiria.
- Prestazioaren eskaera sinatuta egon behar da.

b) Aseguratua hilko balitz, onuradunak beste hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Aseguratuaren hitzez hitzeko heriotza-ziurtagiria
- Aseguratuaren heriotzaren mediku-ziurtagiria
- Medikuaren egiaztagiria, ospitaleratzearen data eta, egongo balitz, altaren data zehaztuta.
- Onuradun izaeraren egiaztagiriak:
 - Legez bananduta ez dagoen ezkontidearen izaera heriotza gertatu ondoren igorritako ezkontza-ziurtagiriaren bidez egiazta daiteke.
 - Aseguratuaren seme-alaben izaera testamentu bidez egiazta daiteke, Azken Nahietako Egintzen Erregistro Nagusiak igorritako ziurtagiriarekin edo, bere orde, jaraunsle-deklarazioarekin batera aurkeztuta.
 - Aseguratuaren gurasoen izaera familia-liburuaren bidez egiazta daiteke.
 - Jaraunsle izaera frogatzeko, Azken Nahietako Egintzen Erregistro Nagusiak igorritako egiaztagiria, aseguratuaren azken testamentuaren kopia, nabaritasun-akta edo abintestato jaraunsleen deklarazioaren auto judiziala aurkeztu ahal izango da.

c) Aseguratua ospitaleratuko balitz, bera prestazioaren eskatzailea izanik, beste hauek ere aurkeztu beharko dira:

- Medikuaren egiaztagiria, ospitaleratzearen data eta altaren data zehaztuta.

d) Edonola ere, aseguratzaile irekitzaileak Autonomia Erkidegoko Osasun Sailari, Organismo Eskudunari, edo, horren orde, aseguratzaileak zerbitzua ematen zuen ospitale, egoitza zein entitateri eska diezaioke:

- Ziurtagiri bat, non adierazten den aseguratua polizak babesten dituen kolektiboetako batekoa dela eta prestazioa bere lan-jardueran, estatutarioan zein profesionalean COVID-19 gaixotasunarekin kutsatu izanaren ondorioz eskatzen dela, COVID-19 gaixotasuna zuten pertsonekin kontaktu fisikoa izateagatik.

Aseguratzailleak aipatu ziurtagiria eskuratu ezingo balu, onuradunari eskatu ahal izango dio beste edozein dokumentu edo baliabide aurkezteko, aseguratua polizak babesten dituen kolektiboetako batekoa dela eta kutsatu izanaren arrazoia COVID-19 gaixotasuna zuten pazienteekin izandako kontaktu fisikoa izan dela egiaztatze aldera.

DATU PERTSONALAK TRATATZEA ETA LAGATZEA

Bezeroaren eta VidaCaixa S.A.U. de Seguros y Reaseguros erakundearen (IFK: A58333261; egoitza soziala: Paseo de la Castellana 51, 1. solairua, 28046 Madril) arteko harremanaren baldintza orokorrak, erakundeak bete beharreko barne araudi eta politikei buruzko informazioa eta helburu komertzialekin tratatzen edo lagatzen diren datuak (unean-unean emandako baimenen arabera) klausula honetan araututa daude, CaixaBank-ekin Esparru-akordioa sinatu edo sinatzen denean salbu (eta taldeko enpresak izan ezik). Halakorik balego, datu pertsonalen tratamenduari buruzko beste edozein konpromisoren gaineratik egongo dira akordio horretan jasotako baldintzak.

Halaber, erakundeak jakinarazten du bezeroek emandako datu pertsonalen eta kontratua indarrean dagoen bitartean jasotzen dituen bestelako datuen tratamenduaren arduraduna denez gero, kontratua kudeatzeko tratatuko dituela datuok, produktu bakoitzaren baldintzetan jasotakoa eta sektoreko araudian ezarritakoa betez; hala, kasu bakoitzean beharrezkoak diren datuak komunikatuko ditu (zerbitzu-hornitzaileak, berraseguru-entitateak, banatzaileak eta organismo/erakunde publikoak).

VidaCaixa-k bezeroaren datu pertsonalak nola tratatzen dituen hobeto ulertzeko eta, batez ere, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta bestelako eskubideak nola egikaritu jakiteko, sar zaitetz web-orri honetan: www.vidacaixa.es/es/proteccion-de-datos. Bezeroak nahi badu, informazio zehatz hori eska dezake paperean, CaixaBank-eko edozein bulegotan.

Etorkizunean sinatzen diren produktu edo zerbitzuen kontratuetan hemen jasotakoarekin bat ez datorren xedapen edo prozedurarik egon arren, klausula honetan jasotakoa gailenduko da, CaixaBank-ekin Esparru-akordioa sinatu edo sinatzen denean salbu. Halakorik balego, Esparru-akordioa gailenduko da, datu pertsonalen tratamenduari buruzko bestelako konpromisoen gaineratik.

ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA BIDALTZEA:

Ohiko posta bidez:
VidaCaixa, S.A.U. de Seguros y Reaseguros
Paseo de la Castellana, 51, 1. solairua
28046 - Madril

Posta elektronikoz:
contacto@vidacaixa.es

Zalantzarik izanez gero, telefono honetara dei dezakezu:
Telefonoa: 930 141 054
Ordutegia: Astelehenetik ostegunera, 8:00 etatik a 19:00 etara. Ostiraletan, 8:00 etatik 18:30 etara.

Eskatzailearen sinadura

Prestazioaren eskaerari buruzko informazio osagarria

Aseguratutako kolektiboa. Aseguratutako kolektiboan sartzen dira honako profesional hauek:

- A) Poliza indarrean egon den bitartean Espainiako ospitale publikoetan, lehen mailako arretarako osasun-zentro edo kontsultategi publikoetan edota Osasun Sistema Nazionaleko larrialdi eta emergentzietako 112/061 zerbitzu publikoetan lan egin duten profesionalak, bai eta ospitale zein klinika pribatuetan eta haietako larrialdi eta emergentzietako zerbitzuetan lan egin dutenak ere, baldin eta beren lan-jardueraren baitan, estatutarioan edo profesionalean, zuzenean koronabirusari/COVID-19 gaixotasunari aurre egiteko lanean aritu badira aipatu osasun erakundeetan, eta kontaktu fisikoa izan badute COVID-19 gaixotasuna zuten pertsonekin, eta betiere jarraian aipatzen diren kategorietako batean sartzen badira.

Ospitale publikoaren izendapenaren barruan sartzen dira pandemiari aurre egiteko gaitu diren aldi baterako osasun-instalazioak eta ospitale gisa erabilitako instalazio eramangarriak (ospitaleen edo Autonomia Erkidegoen menpeko kanpaina-ospitaleak); ez dira sartzen, ordea, hotel medikalizatuak, ez eta etxebizitza pribatuak ere, bertan etxeko ospitaleratzeak egin izan arren.

Kategoriak:

1. Honako jarduera hauek egiten dituzten profesionalak

- 1.1. Medikuak
- 1.2. Erizain eta emaginak
- 1.3. Erizaintzako zaintza osagarrietako teknikaria
- 1.4. Alor hauetako espezialistak:
 - a) Ospitaleko erradiofisika
 - b) Azterketa klinikoak
- 1.5. Goi-mailako teknikariak:
 - a) Laborategi Kliniko eta Biomedikoa
 - b) Diagnosi-irudiak eta Medikuntza Nuklearra
- 1.6. Ospitale publiko zein pribatuetan, edota lehen mailako arretarako osasun-zentro edo kontsultategi publikoetan lan egiten duten farmazialariak.
- 1.7. COVID-19 duten pazienteekin arnas terapia egin duten edo COVID-19 dela eta ZIUan dauden pazienteei hodia ahalik eta lasterren kendu ahal izateko tratamendua egin dieten fisioterapeutak, bai eta pronazioaren ondoriozko polineuropatia sekundarioak eta sedazio luzea ere.

2. Osasun arloko beste profesional batzuk

- 2.1. Barneko Mediku Egoiliarra (BME)
- 2.2. Barneko Erizain Egoiliarra (BAEE)
- 2.3. Barneko Farmazialari Egoiliarra (BAFE)
- 2.4. Barneko Psikologo Egoiliarra (BAPE)
- 2.5. Barneko Kimikari Egoiliarra (BAKE)
- 2.6. Barneko Erradiofisikari Egoiliarra (BEE)

3. Langile ez-sanitarioak

- 3.1. Zeladoreak
- 3.2. Pazienteak anbulantzia zein helikoptero medikalizatuetan lekualdatzeaz arduratu diren Osasun Larrialdietako Teknikariak.

4. **Martxoaren 15eko SND/232/2020 Aginduaren hirugarren eta seigarren xedapenen artean ezarritakoaren arabera kontratatutako profesional sanitarioak. Agindu horren bitartez, giza baliabideei eta bitartekoei lotutako neurriak hartzen dira COVID-19 gaixotasunak eragindako krisiari aurre egiteko.**
- 4.1. Graduak azken urtean dauden Medikuntzako eta Erizaintzako ikasleak.
 - 4.2. Medikuntzako lizentziadunak izanik barneko mediku egoiliar (BAME) izan nahi dutenak, eta Erizaintzako diplomatuak izanik barneko erizain egoiliar (BAEE) izan nahi dutenak.
 - 4.3. Europar Batasunaz kanpoko herrialderen batean espezialista titulua lortu duten profesional sanitarioak.
 - 4.4. Europar Batasuneko herrialderen batean aintzatesteko prozedura ireki bidez espezialista titulua lortu duten profesional sanitarioak.
 - 4.5. Erretiratuta zeuden eta Autonomia Erkidegoko osasun sail eskudunak hala eskatuta lanera itzuli diren mediku eta erizainak, hirurogeita hamar urtetik beherakoak, eta Autonomia Erkidegoek izendatutako langile emerituak.
 - 4.6. Beren borondatez, eta baimenarekin, lanera itzuli diren mediku eta erizainak, funtzio sindikalak betetzeko.

- B) Poliza indarrean egon den bitartean Espainiako nagusien egoitza publiko zein pribatuetan lan egin duten profesionalak, baldin eta beren lan-jardueraren baitan, estatutarioan edo profesionalean, zuzenean koronabirusari/COVID-19 gaixotasunari aurre egiteko lanean aritu badira eta kontaktu fisikoa izan badute COVID-19 gaixotasuna zuten pertsonekin, eta betiere jarraian aipatzen diren kategorietako batean sartzen badira:

Kategoriak:

Medikuak
Erizainak
Erizaintzako zaintza osagarrietako teknikaria
Geriatría eta gerontologiako laguntzaileak (gerokultoreak)

Aseguratutako taldea denetx erabakitzeko, ezinbestekoa izango da aseguratuaren lan-jarduera, estatutarioa edo profesionala, zuzenean pertsonen osasunari lotuta egotea, eta bere lan-jardueraren baitan, estatutarioan edo profesionalean, koronabirusari/COVID-19 gaixotasunari aurre egiteko lanean aritu izana, COVID-19 gaixotasuna zuten pertsonekin kontaktu fisikoa izanda.

Estaldura-epea

Aseguruak COVID-19 gaixotasunagatik 2020ko martxoaren 14tik irailaren 13ra bitartean (biak barne) ospitaleratzen edo hiltzen diren pertsona guztiak babestuko ditu, betiere aseguratuak kolektibokoak badira.

Kontratatutako bermeen xehetasunak

(1) Heriotza.

Aseguru-entitateak 30.000 euro gordin ordainduko dizkio onuradunari baldin eta estaldura-epearen barruan aseguratuak COVID-19 gaixotasunak jota hiltzen bada, bere lan-jardueraren baitan, estatutarioan edo profesionalean, zuzenean koronabirusari/COVID-19 gaixotasunari aurre egiteko lanean aritu izanaren eta COVID-19 gaixotasuna zuten pertsonekin kontaktu fisikoa izan izanaren ondorioz.

Heriotza prestazioaren onuradunak jarraian aipatutakoak izango dira, ordena honetan eta izaera baztertzailerekin:

1. Aseguratuaren ezkontidea (banantze-epairik dagoenean izan ezik) eta seme-alabak, zati berdinetan.
2. Aseguratuaren gurasoak, hauek ere zati berdinetan.
3. Azkenik, aseguratuaren jaraunsleak.

(2) Aseguratuaren ospitaleratzea bai instalakuntza publiko zein pribatuetan.

Aseguru-entitateak 100 euro ordainduko dizkio aseguratuari, bera onuraduna izanik, ospitaleratuta dagoen egun bakoitzeko, baldin eta ospitaleratzea estaldura-epearen barruan gertatu bada eta COVID-19 gaixotasunagatik izan bada, bere lan-jardueraren baitan, estatutarioan edo profesionalean, zuzenean koronabirusari/COVID-19 gaixotasunari aurre egiteko lanean aritu izanaren eta COVID-19 gaixotasuna zuten pertsonekin kontaktu fisikoa izan izanaren ondorioz, eta ospitaleratzeak hiru egun baino gehiago irauten badu, bi asteko mugarekin.

Kasuaren arabera ospitaleratzeagatik egokitzen zaion zenbateko osoa jaso baino lehen aseguraturia hilko balitz, prestazioaren onuradunak jasoko du heriotza prestazioa.

Ospitale publiko zein pribatu izendapenaren barruan sartzen dira pandemiari aurre egiteko gaitu diren aldi baterako osasun-instalazioak eta ospitale gisa erabilitako instalazio eramangarriak (ospitaleen edo Autonomia Erkidegoen menpeko kanpaina-ospitaleak); ez dira sartzen, ordea, hotel medikalizatuak, ez eta etxebizitza pribatuak ere, bertan etxeko ospitaleratzeak egin izan arren.